

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Zerealen uzta amaierako fasean da

Nekazaritzako elikagaien industriak neguko barazkien eskaria handitu du

Martes, 19 de julio de 2011

Uztailaren 8tik 15erako egunetan eguzkia eta garai honetako tenperatura egin zuen. Denbora tarte horretako azken egunetan bakarrik, iparraldeko haize hotzaren eta hodeien ondorioz, tenperaturek behera egin eta euri apur bat egin zuen, iparraldean hegoaldean baino gehiago.

Uztailaren 12ko arratsaldeko ekaitzak zerealen guneeetan metro koadroko 10 litro euri baino gutxiago egitea eragin zuen; horren ondorioz, zerealen eta ordezeko laboreen uzta, azken fasean dena, une batez eten egin zuten; denbora lagun izanez gero, aste honetan bukatuko dute.

Garagarraren uzta amaitutzat eman daiteke, iparralderago dauden eskualdeetako lursail batzuetan izan ezik. Pisu espezifikoak onak izan dira, oro har, baina etekinak azken urteetako batez bestekoa baino beherago daude: Erriberan, hektareako 1.500-2.500 kilogramo inguru batez beste; Erdialdean eta Lizarrerriaren hegoaldean 2.500-3.500 kg, eta Iruñerrian eta Pirinioetan 4.000-5.000 kg.

Gariaren kasuan, kanpaina amaitu gabe dago oraindik eta hauek dira emaitzak gutxi gorabehera: hektareako 4.250-5.250 kilogramo Iruñerrian eta Pirinioetan, 3.500-4.500 kg inguru Erdialdeko eta Lizarrerriko gunee freskoetan, eta 1.200-2.200 kilogramo hektareako Erriberan.

Koltzen emaitzak ez dira izango aurreko kanpainako emaitza bikainak, baina, hala ere, bat datoz aurreko kanpainetako batez bestekoarekin. Erdialdeko etekinak 2.250-2.500 kilogramo dira hektareako.

Bazka laboreak. Ibarretan, Sakanan, Baztanen eta Erroibarren egindako euria metro koadroko 15 litro baino gehiago izan zen. Hezetasun hori ondo hartu zuten bazkarako artoak, izan ere, garapen begetatibo betean izanik, lurzoruaren hezetasunaren beharra zuen.

Ureztatzeko laboreak. Ureztatzeko laboreen artean, kontserbarako tomateen lursailetan fruituak ikus daitezke. Piperraren kasuan, fruitua hazten ari da, eta, txandaka, beranduagoko plantazioetan loraketak eta osaketak agertzen dira.

Ereintzak eta plantazioak. Artoa ereiteko kanpaina amaitutzat eman da. VI. Eskualdean, Azagra inguruan batez ere, egun hauetan, neguko ohiko barazkiak (kardua, zerba eta borraja) prestatzeko eta jartzeko lana areagotzen ari dira. Nekazaritzako elikagaien industrian gora egin du produktuen eskariak, kardua eta zerbaren kasuan gehienbat; hortaz, landu beharreko lursaila aurreko kanpainako beherakadaren ondoren suspertuko da. Industriadako indaba berdea ereiten jarraitzen

dute, bai lauak, bai borobilak, eta, aste honetan, brokoliaren eta azalorearen lehen lursailak landatzen hasi dira Funes eta Azagra inguruetan.

Bilketak. Hasierako loraldietako kalabazina biltzeko kanpainan dihardute, eta etenik onak ematen ari da. Ozpinez ondutako piperminen lehen bilketa burutzen ari dira Figarol eta Murillo el Fruto inguruetan. Udareen lursailetan beraduagoko fruituak bakantzeko azken faseak txandakatzen ari dira, Konferentzia esate baterako, Ercolini bariedade goiztiarragoaren bilketarekin. Melokotoiak biltzeko kanpaina ere hasia da, Catherine bezalako bariedade goiztiarra.